



Jota landuko dute Areatzan bihar eta igandean egingo duten ikastaroan. AIKO

Dantzan, osasuntsu

6

Dantza ikastaroa
Areatza

Erredakzioa Bilbo

Dantza Asteburuak jardunaldia-
rekin gerturatuko da bihar Aiko
taldea Arratiara. Asteburu osoan
ibiliko dira Areatzan dantzaren
inguruko jarduerekin.

Jota saioak nabarmenduko
dira bihar eta igandean. Dantza
Asteburuaren helburua «estilo tra-
dizionalean dantzan ibiliz, ari-
ta osasungarria egin nahi duten
pertsonek guztiak biltzea da»,
antolatzaileek azaldu dutenez.
Ekinaldiak bi parte ditu: bihar
iluntzekoa eta igande goizekoa.

Bihar Arratian hasiko duten

jardunaldian, «bakoitzak bere
neurrikoa aukeratu ahal izateko
bi proposamenekin» agertuko
dira Aiko taldekoak. Batetik,
apaindurak eta inprobisazio jota
lantzeko aukera dago. Bestetik,
jotaren oinarriak jorratuko dituz-
te emanaldiotan parte hartzen
dutenek.

Lehenengoari dagokionez, hel-
burua da jotak sormenerako eta
jolaserako dituen baliabideak
aztertzea, ikustea eta frogatzea.
Hainbat urtetan jota dantzatzen
daramatenen artean apaindurak
ikasi nahi dituztenentzat dira.
«Baita pausoekin, egiturekin eta
musikarekin batera inprobisa-
tzen ikasi nahi dutenentzat ere».

Jotaren oinarriak atala hauta-
tzen dutenek, jotaren oinarriak
aztertu, ikertu eta landuko dituz-
te. Jota dantzatzen trebeak zein
hasiberriak direnek har dezakete
parte.

Ikastaro biak aldi berean

emango dituzte. Beraz, bi talde-
tan banatuko dituzte parte har-
tzaileak. Ariketetako batzuk,
baina, elkarrekin egingo dituzte.

Ikastaroaren prezioa 50 euro
da. Parte hartzeko, izena eman
behar da alde zurretik, izen-abi-
zenak eta telefono zenbakia
zehaztu eta erabaki zein ikastaro-
tan parte hartu gura den. Aiko-
ren kontu korrontean sartu
behar da dirua.

EGITARUA

■ **Larunbata.** 16:00etan, gelen
banaketa eta izen ematea.

17:00etan, aurkezpena, Area-
tzako udaletxean, eta ikastaro-
en hasiera. Bukatzean, dutxa,
afaria eta afalondoko guatekea.

■ **Igandea.** 10:00etan hasiko
dute berriz ere ikastaroa.
12:30ean, Kepa Artetxerekin
dantzan. Bukatu eta gero, dutxa
hartu eta bazkaldu egingo dute,
agurrari ekiteko.